

IDEIA NAGUSIA

Gure proiektua aurrera eramateko ideia gure garraio publikoarekiko erabilpenaren inguruan doa. Egunerokotasunean garraio publikoa erabiltzen dugu, eta erabilpen horretan hainbat arazoez jabetu gara; besteak beste, puntualtasuna, garraiorako ibilgailuen egoera txarra... Gu zehazki, puntualtasunari begira jarri gara, eta egunerokotasunean garraio bide ezberdinak berandu iristen direla jabetu gara.

Honi soluzio bat emateko, gure proiektua sortzea erabaki dugu. Gure proiektua aplikazio bat izango da; eta bertan garraio publikoaren inguruko informazio ezberdina izango dugu. Lehenik, mapa bat izango dugu, eta bertan momentuko autobus, tren edota garraio ezberdinen kokapena azalduko da. Bestetik, inguruko garraio ezberdinen datuak eta ordutegiak ikusteko aukera izango dugu. Azkenik, egunerokotasunean erabiltzen ditugun garraioak “gustoko dut” eremuan gordetzeko aukera izango dugu, eta aplikazioak gure garraioaren informazioa bidaliko digu uneoro (berandu datorren, lehenago datorren, matxurarik izan duen...)

Azkenik, edozein pertsonak gure aplikazioa erabiltzeko aukera izan dezan, garraio publikoa hartzen dugun kokaleku ezberdinetan pantailak jarriko ditugu, eta hauetan guk hartu behar dugun garraioaren ordutegia, kokapena eta beste hainbat datu ikusteko aukera izango dugu.

